

# MENDI MAGALEAN

*Egilea: Aia*

Mendi magal batean kokatzen zen Artitza herria. Artitza herri txiki bat zen, lasaia, bere udaletxe, eskola eta komertzio txikiz osatua. Mendian gora joanez gero, hainbat baserri, baso eta txoko aurkitu zitezkeen baita ibai eder bat ere.

Ongi ezagutzen zituen inguru hauek Maddalenek.

Maddalen Artitzan bizi zen ile kizkurdun neskatila beltzarana zen. Lagun ugari zituen herrian eta goizero elkarrekin joaten ziren eskolara, herriko kaleak zeharkatuz kontu kontari. Egun guztiak ez dira berdinak izaten ordea eta Maddalenezat ere ez.

Batzuetan erraz jaikitzen zen ohetik, beste batzuetan berriz begiak irekitze hutsak min ematen zion. Baziren egunak, non, eskolan dena borobil joaten zen eta baziren egunak, non, etxean ere, gurasoekin, haserretuta amaitzen zuen. Lotsa momentuak pasatzen zituen txantxaren bat egiten bazioten, baina hauetaz farre egiten ere bazekien.

Horrela, egun guztiak ezberdinak izan arren, beti zuen gustuko mendian bakarrik galtzea. Izan ere, mendi magal hau benetan berezia zen. Nolako berezia gainera!! Mendiak neskatoa maite zuen eta neskatilak mendia. Maite ditugunak zaintzen ditugun moduan babesten zuen mendiak Maddalen bere inguruak eraldatuz neskatilaren gogo-aldartearen arabera. Bertako txokoak ongi ezagutzen zituen Maddalenek eta egunaren arabera ongi zekien nora joan behar zuen.

Paraje hauetan aurkitzen zen, adibidez, Kortza izeneko baserria. Uda edo negu izan beti lorez inguraturik egoten zen Maddalenezat. Atea zabalik izaten zuen eta bere leiho zabaletatik sartzen ziren eguzki-izpiek bertako gelak argitasunez betetzen zituzten. Bizitza eta alaitasuna arnasten zen barru nahiz kanpoan eta jolastera, kantatzera edota salto egitera gonbidatzen zuen espazioan bihurtzen zen. Era honetan, Maddalen pozik zegoenean, opari bat jaso zuelako edo zerbait atsegina esan zioetako, adibidez, Kortzara gerturatzen zen eta, bertan, bere poztasuna adierazi eta partekatzeke toki paregabea aurkitzen zuen.

Kortza baserritik ez oso urruti, ibaiaren beste aldean, Uztain baserria zegoen. Guztiz bestelakoa zen Uztain. Inguruan ez animaliarik ezta lore koloretsurik ez zen ikusten. Leiho txiki eta itxiak zituen eta eguzkiaren epeltasuna urruti geratzen zen. Kortzako poza eta Uztaineko tristura kontrajarriak ziren. Hala ere, lagun bat kanpora bizitzera joandakoan edo ezbeharren bat gertatutakoan, berarentzat piztuta egon ohi zen suaren ondoan eserita egotea gustatzen zitzaion bere pentsamenduetan murgildurik.

Lagunekin edo gurasoekin haserretu ondoren gerturatzen bazen, ibai ondoko harriak pilatzen ziren bere inguruan Maddalenek indarrez uretara bota zitzaion eta, horrela, barruko samina atera zezan. Nahigabe, guztien aurrean lurrera erori eta korrika batean lotsatuta azaltzen bazen, basoetako zuhaitz eta sastrakek beraien adar eta hostoekin ezkutalekuak sortzen zituzten neskabila gorde zedin. Eta egun horretan eskolako ariketaren bat bereziki ongi irten zitzaiolako edo lasterketa batean partehartzeagatik gogobeteta iristen zenean, berriz, bideak irekitzen zitzaizkion salto eta korrika egin zezan.

Haserrea, alaitasuna, kezka, urduritasuna, poza, lotsa, nahigabea... mendi magalak guztientzat zuen erantzuna.

Artizako herritarren begietara, mendi magal hura, baserriz, zuhaitzez, animaliaz... betetako eta herritik gertu zegoen beste mendi magal bat baino ez zen. Maddalenen begietara berriz, egunero ezberdina zen. Batzuetan kolorez betetakoa, besteetan, labirinto baten antzera bidexka mordo batez osatua bertan galdu eta inork ez aurkitzeko modukoa. Hosto berdez jantzitako zuhaitz garaiak ere aurkitzen zituen beste batzuetan, hauetara igo eta guztientzat oihu egiteko aukera izaten zuen horrelakoetan. Eta atsedean une epel eta lasaiak hartzeko baserrietako ateak zabaltzen zitzaizkion behar zuenean. Baserri haundi eta argitsuak edo txikiago eta lasaiak. Mendi magal hura magiaz betea zegoen Maddalenenentzat.

Baina hau, bere sekretua zen.

Ez zegoen hura baino leku ederragorik! Sentimendu hauen jakitun izateak, sentimendu guzti hauek sentitzeko askatasuna izateak, sentimendu guzti hauek bizitzeak ematen zion Maddaleni ZORIONTASUNA.